

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DURANGOKO UDALAREN 2015-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 27an Durangoko Udalaren eta bere tokiko erakunde autonomoen eta sozietate publikoen ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa. Txostenari Osoko bilkurako kontseilari batek boto konkurritzailea jarri dio.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai tokiko erakunde autonomoek eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dutela 2015eko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia**, nahiz ez-betetze hauek azaleratu diren: 4 kontratu prozedura ireki bitartez izapidetu behar ziratekeen; Durango Kirolak erakunde autonomoaren lehendakariak esleitu zuen kontratu bat, kopurua aintzat hartuta, Zuzendaritza Batzordeari zegokionean esleipena egitea eta langileen hiru kontratazio Estatuko Aurrekontuen Legeak ezartzen dituen mugaketak urratuta gauzatu dira.

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du kasu guztietan; alabaina, Udalaren Diruzaintza Geldikina 4,7 milioi euroan murriztea eragiten duten zenbait doiketa azaleratu ditu. Gainera, HKEEk ez du Ibilgetuko idazpuruetakoko saldoei eta horien amortizazioari buruzko iritzirik eman, ez baitu horien elementuen araberako xehapenik.

**Egoera finantzarioari** dagokionez, HKEEk azpimarratu du eragiketa arruntek sortutako **aurrezki gordina hobetu egin dela** hirurtekoan sarrerak igo direlako, gastuei eutsi zaielako eta hirurtekoaren lehenengo urtean ezohiko gastuak barne hartu direlako. Zorpetze eragiketa bakarrari finantza zama kenduta, **gastu arrunten % 7ko aurrezki garbia** eskuratzen da.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, 2015ean **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete direla**.